

1965
1970
1975
1980
1985
1990
1995
2000
2005
2010
2015

AZO
KATIK
MUN
DU
RA

JESUS MARI **ARRUABARRENA**



AZOKATIK MUNDURA

Aurreko egoera	77
Hasierako helburuak	81
Hasierako izenak	83
Conchita Astola, elkarteko lehenengo lehendakaria Leopoldo Zugaza, azokaren sortzailea Beste kide batzuk	
Adiskidantzak, estrategiak eta abar	87
Lehenengo Azoka	91
Hasierako urteak. Balendin Lasuen, presidente	97
Alberdi eta Goikolea presidenteen garaia	103

Talde sendo baten jarduera.	
80ko eta 90eko hamarkadak. 1980-2002	111
<hr/>	
Arduradunekin hizketan	115
<hr/>	
Egoera-aldaketa	
Lan egiteko modua	
Diru kontuak	
Hurbilekoak, aurkariak, liskarrak eta abarrak	
Politikarien presentzia	
Azoka eskuratzeko ahaleginak	
Euskara hutsezko azoka	
Editoreak	
80ko eta 90eko hamarkadei lotutako printza aipagarri batzuk	
Azkenengo urteak. Nerea Mujika, presidente	145
<hr/>	
Azokaren ibilia markatu zuten gakoak	155
<hr/>	
Agintariekin arazoak eta zentsura	
Militantzia	
Mugarriak	
Etorkizunari begira	169
<hr/>	
Begirada kronologikoa	173
<hr/>	
Kartelak. 1965-2015	





Durangoko Azoka zer den hiztegi batean esaterik balego, honen antzeko definizio bat egin beharko genuke: *Durango* abenduaren hasieran egiten den *euskal kulturaren azoka*. Definizio guztien antzera, hori ere herren geratuko litzateke, Azokaren ezau-garri asko aipatzeke geratuko lirateke-eta. “Durango euskal kulturaren eskaparatea da”, esango du batek. Beste norbaitek “eskaparate” hitza ezabatu, eta “motore” hitza jarriko du orde. “Sortzaileen eta euskalzaleen topagunea” dela esango du beste batek. “Euskal kulturgintzaren gailurra” dela erantsiko du baikorrek. “Euskal liburu eta disko azoka baino ez da”, botako du ezkorrek. “Euskalgintzaren industriari neurria hartzeko gunea” iritziko dio praktikoak. “Peregrinazio-gune” izendatuko du beste norbaitek. Zenbat buru, hainbat aburu.



Jakina denez, hasierako definizioari bakoitzak bere gogoko ñabardura erantsiko dio. Hori dela-eta, pixkanaka eta hainbat ikuspegitik begiratu osotu beharko dugu *Durangoko Azokaren* erretratu edo puzzlea. Hurrengo lerrootan *Azoka* zer den eta zer izan den jakiteko aukera izango dugu.

Landakogunea santutegi bilakatuko balitz —eta hemengo erromesaldi jendetsuak eta sutsuak ikusirik halako zerbait bihurtu dela dirudi—, ez litzateke erraza izango jakitea zeintzu apostolu jarri beharko genituzkeen frisoan eta zeintzuk ez. Zalantza horiek gaudituz, egin dugu aukeraketa. Gerediaga Elkarteko lehendakariak, bozeramaileak, azoka-zuzendariak, antolatzaileak eta *langile grisen* ordezkarien batzuk ere jarriko ditugu friso honetan. Beraz, irizpide horri jarraiturik, horien hitzak irakurriko dituzue hurrengo orrialdeetan.

2013 Azoka beteta.

1969 Azoka Andra Mari elizpean.





Aurreko egoera

1950eko hamarkadan, Leopoldo Zugazak 18 urte zituela, Durangon ez zegoen liburutegirik. “48an Euskal Herri osoan lau liburutegi besterik ez zeuden. Bizkaiko liburutegi publiko bakarra Diputazioarena zen”. Kulturan gabezia handia zegoen. “Mundu hura oso laua zen, ez zegoen ezertxo ere”, aitortu digu Zugazak. “Testuinguru hartan, oztopo politikoak zirela-eta, erakunde kultural bat sortzea lan zaila zen. Horrelako erakundeak sortzeko baimekin ez zuten ematen”.

Zailtasunak gorabehera, Zugazak elkartearen estatutuak idazteari ekin zion. Nolako boligrafoa erabili zuen zehatz-mehatz gogoratzen du oraindik (non erosi zuen, haren idazkera eta abar). Aldi berean, inguruko zenbait pertsonarekin harremanak sendotzen hasi zen. Jesus Astigarraga, Bizente Kapanaga, Salbador Solaegi, Jesus Mari Astola, Charines eta Conchita Astola, Carmen Miranda, Jose Luis Lizundia, Koldo Alzibar, Arrate Salazar, Julian Berriozabalgoitia eta J.M. Sertucha izan ziren haietako batzuk. Hainbat batzar egin zituzten. Leopoldok estatutuak aurkeztu zizkienean, besteek oniritzia eman zioten, eta elkarte legezatzeko eskaria egin zuten.



Zugazaren dendan batzar erabakigarri bat egin zuten. Eraikuntza-materialak saltzen zituen toki hartan proposatu zuen Zugazak liburua azoka egitea, beste egitasmo askoren artean. Batzarlekuan bi aulki besterik ez zeudenez, adreilu batzuk pilatuz eta ohol bat jarritz atondu zuten jarleku luzea. Eszenatoki apala, inondik ere, Durangoko Azokaren sorrerarako. Han elkartutakoek ametsik zoroenean ere ez zuten pentsatuko noraino puztuko zen asmo hura, eta gaur eguneko Azoka ikustera datorrenak ere nekez imajina dezake hasiera xume hura.

70eko hamarkada. Leopoldo Zugaza, agintari bat eta Amorrortu, Durangoko orduko alkatea.

2010. Nerea Mujika, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Jose Mari Uriarte, Leopoldo Zugaza, Jon Irazabal eta Jose Luis Lizundia Azokan.




1965. Lehenengo Azoka egiteko baimen-eskaria, udalean aurkeztutakoa.

Taldeko norbaitek galdera ezkorra egin zuen: “Eta hori zertarako?” Zugaza adoretuak ohiko tonu kementsuan erantzun zion: “Ez bazaizue interesatzen, neuk bakarrik egingo dut!”

Jose Luis Lizundiaren iritziz (Azokaren sortzaileetakoa da berau ere), “jendeak egarria zeukan, gosean. Euskal mundua katakunbarioa zen, nolabait esateko. Euskal kultura katakunbetan zegoen”.

60ko hamarkadaren erdirantz errejimenean “apertura” txiki bat gertatu zela diosku Lizundiak. Arnasbide estu hari esker, 1966an eman zieten elkarte eratzeko baimena. Hala eta guztiz ere, egoera politikoa nahiko itogarria omen zen. “Denok geunden zainduta, denok geneukan fitxa bat irekita. Ni zainduta nengoan Astolako etxean. (...) Niri Guardia Zibilaren tenienteak esan zidan behin, modu sasi-dotore batean... Deitu zidan bere bulegora eta esan zidan: ‘Lizundia, zu ez zaitugu harrapatuko hormak margotzen, baina zuk aholkuak ematen dizkiezu hormak pintatzen dituztenei’. Orpora ez ziguten jarraitzen, baina jarraitzen gintuzten”.

Durangaldeko gazte batzuek kultura-elkarte bat sortu behar zela ikusten zuten. “San Bixenti egunean, Astolako jaia zela-eta —dio Lizundiak—, gure etxean afari bat egin genuen, eta elkarte egitea erabaki zen. Gero, Abadiñoko *Soloa* jatetxean sortu zen elkarte. (...) Aurreko urtean “Ley de asociaciones” zeritzon legea onartu zen, Fraga Iribarneren garaian. Errejimena ireki egin zen apur bat, askorik ez. (...) Elkartearen lehenengo ekintzak lau hirietan egin ziren: Durango, Elorrión, Ermuan eta Otxandion”.



Balendin Lasuenek, Gerediaga Elkarteko bigarren presidenteak, ere egin digu garai zail hari buruzko aipamenen bat: “Jendea beldurrez zegoen oraindino, arduraz ere bai. Edukitzekoa zen gero! Baina jendea gogotsu zegoen”.

Araozak arazo eta beldurrak beldur, Bizkaiko Gobernadore Zibilak 1966ko ekainaren 1ean onartu zuen elkarte eta zilegiztat eman zituen Gerediaga Elkartearen helburuak. “Estatutuen arabera —zioen Gobernadore Zibilaren idazkiak—, elkarteak helburu hauek lortu nahi ditu: antzinako Merindadeko historiaren aztarnak zaindu eta galdutako agiriak nahiz datuak berreskuratu, eskualdeko aberastasun kulturalari eta espiritualari eutsi eta jaso”¹.

1 Bizkaiko Gobernu Zibila. 1966, ekainak 1.





Hasierako helburuak

Gobernadore Zibilaren agiriak honako beste hitz hauek ere bazekartzan aurrerago: "...eskualdeko garapen industrial eta komertziala bultzatu". Gaurko ikuspegitik begiratuta helburu horiek arraroak egingo zaizkigu, nik neuk ere Gerediaga elkarteak kulturarekin lotu dudalako beti. Ildo horretatik, bixia egin zait Leopoldori entzutea produktibitateari buruzko filmak erakusten zituztela Durangoko eta Ermuko zinemetan.

Elkartearen asmoei eta helburuei buruzko zalantzak uxatzeko, Bittor Kapanagak aspaldi idatzitako hitzei hautsa kenduko diegu. Otxandioko euskalzaleak ondo baino hobeto laburbildu zituen elkartearen helburuak: "Zer dugu, zinez, eta benetan Gerediaga elkarteak? Batzuentzat, kultur talde bat gehiago. Beste batzuentzat, irizpide berdina duten zenbait adiskideren elkarte bat. Eta susmati doilor batzuentzat, halako politika usain berezi bat duen zerbitu."

70eko hamarkada. Balentin Lasuen, Jose Ignacio Alberdi, Amorrortu, eta probintziako agintariak.



Baina guretzat, elkartearen ardura oso-osoan bizi dugunontzat, Gerediaga izatea argi dago. Eta argi eta garbi ager dezakegu: euskal izaerak taxutu duen herri-erakunde bat. (...) Elkarte honen oinarri sendoa eta bakarra, herriarekiko ardura da. Horatik sortzen zaizkio dituen helburuak: eskualdeko kondaira lorratzak jagotea eta galdutakoak bilatzea; gogo eta kultur ondasunak zaintzea eta ugaritzea; herritarren bizibidea hobegotzen laguntzea; herri-lanez, eskualdean batasun giro bat sortaraztea eta gizarte-egoera hobegotzea².

Ez dira gutxi, eta ez dira helburu makalak! Ez dut epaituko Gerediagaen lana, baina badirudi urteen poderioz Gerediaga apurka-apurka albora utzi dituela bere asmo sozialak eta industrialak, eta helburu kulturei heldu diela irmokiago.

2 Anaitasuna. 1975, urriak 31





Hasierako izenak

Conchita Astola, elkarteko lehenengo lehendakaria

Pisuzko izenen artean Conchita Astolarena gogoratu behar da. Conchita Jabego-erregistroko funtzionarioa zen (eta bere ahizpa —*Charines*—, Udaletxeko idazkaria). Jose Luis Lizundiak lagundu digu emakume haren erretratua osatzen. “Astolatarrak handiki familia batekoak ziren. Durango redukto karlista bat zen orduan. Lehenengo bi urtetan Conchita izan zen presidentea. Udaletxetik hurbil egoteak eta *stablishment*-etik hurbil egoteak ere bere aportazioa egin zuen. Nire sinaduragatik izan balitz, ez zen azokarik egongo. Eta Leopoldoren sinaduragatik ere ez”.

2010. Conchita Astola bere etxean.

2012. Leopoldo Zugaza Azokan. (pantailan, Antton Mari Aldekoa-Otalora).



Leopoldo Zugaza, azokaren sortzailea

Elkartearen lehenengo ekitaldietako bat liburu azoka antolatzea izan zen, eta proposamen hura Leopoldo Zugazarena izan omen zen. Zugazak ikusgarritasuna eman nahi zien euskaraz argitaratutako liburuei eta euskal gaiez mintzo ziren argitalpenei.

Ekimen horrek bazuen aurrekari bat: 1935ean Eusko Ikaskuntzako “Baraibar” taldeak Gasteizen egin dako euskal liburuen erakusketa. Zoritxarrez, saia-kera hura bertan behera geratu zen 1936an gerra piztu zenean.



70eko hamarkada. Jesus Astigarraga (ezkerrean), orduko agintariek.

70eko hamarkada. Azoka merkatu plazan.

“Carmen Miranda [emaztea] eta biok hilabete inguru ibili ginen hara eta hona —diosku Zugazak—. Toki batera joan eta ezetz esaten zidaten, hurrengo batean itzultzeko. Editore bakar batek ere ez zigun berehala baietz eman! Batek ere ez! [Leopoldok euren liburuak Durangora ekartzea proposatzen zien editoreei]. Ezetz erantzuten zuten, ekimena ez omen zelako interesgarria inorentzat. Horiek editore pribatuen erantzunak izan ziren; ofizialek, ordea, ‘hauek zertara ote datoz?’ pentsatzen zuten”.

Euskal liburuak interesik piztuko ote zuen edo ez asmatzeak zalantza handiak sortzen zituen editoreen eta banatzaileen artean, baina horiez gain mesfidantza politikoak bizirik jarraitzen zuen. Leopoldok gogoan dauka errejimenero bi gizonen arteko elkarriketa bat. *Arkarazo* tabernan izandako berriketaldi hura esaldi kategoriko eta erabiliegi batez amaitu zen: “Horiek separatistak dira!”.

Esaldi erabiliegia eta egoera aldrebesa, handik urte askotara ere. Hona hemen beste egoera adierazgarri bat. 1975ean Leopoldo Zugaza igandero joaten zen Madrilera trenez, Bilbon ohe-bagoia hartuta. Asmoa zen astelehen goizetan Informazio eta Turismo Ministeritzan egotea, editore izateko espedientea nolako egoeran zegoen jakiteko. “Behin, txostena desagertu egin zela esan zidaten. ‘Dokumentazio



guztia berriro lortu eta aurkeztu egin beharko dut’, esan nion funtzionarioari. Eta berak erantzun: ‘Egizu nahi duzuna, baina jakizu hemen euskal kontuak...’”. Funtzionarioak aho-puzkerra egin ez amaitu zuen esaldia, Zugaza iraintzeko asmoz. Giroa ez zen gozoa, inondik inora.

Beste kide batzuk

Hauek ziren Gerediaga elkartearen hasierako lantaldeko kideak: Astolatarrak (Conchita, Charines eta Jesus Mari), Lepoldo Zugaza, Carmen Miranda, Jose Luis Lizundia, Jesus Astigarraga, Luis Mari Alzibar, Julian Berriozabalgaitia, Arrate Salazar, Bixente Kapanaga, Salbador Solaegi eta, Zugazaren iritziz Azokaren hiru laguntzaile handi, Basilio Arana, Jon Berganza eta Gurutze Arregi.





Adiskidantzak, estrategiak eta abar

Leopoldo hegazti harraparien antzera zebilen probintziaz probintzia, erasotzeko era egokiena aurkitu nahian. Bere sedukzio-gaitasunaz baliatzen zen kultur arloko jauntxoak azokara erakartzeko.

Argi ikusten zuen liburugintzan zebilen jende garrantzitsua gonbidatu egin behar zela, eta gonbitea eskutitz bidez barik zuzenean egin behar zuela. Beraz, euskal liburugintzako totemak bisitatzeari ekin zion. Iruñean, Jose Esteban Urangarengana joan zen, *Principe de Vianako* zuzendariarengana hain zuzen ere. Urangak ustegabeko harrera zakarra egin zion: "Aizu, Nafarroa Espainiako armarrarian Nafarroa da!". Eta Leopoldok lotsarik gabe erantzun zion: "Aizu, gu ere nafarrak gara. Durangaldeko Merindadeko baserritar askeen Forua nafar batek sortu zuen, Garcia batek, Nafarroako errege batek alegia". Urangak arrazoia eman zion, eta harrez gero durangarra eta iruindarra lagun hurkoak izan ziren.

Nafarroan Jaime del Burgorengana (politikari ezagunaren aitarengana) ere joan zen; Donostian, *Auñamendira*, Estornes Lasa familiarengana; ondoren, Gipuzkoako Aldundira, eta abar. Peregrina-



zio hartan sarritan entzuten zuen esaldi berdina: "Hori ez zaio inori interesatzen!". Esate baterako, *Itzaropena* argitaletxeko Sabin Unzurrunzagak bota zion esaldi mingarria. Hala ere, Leopoldok hura ere komentzitu zuen. Bilbon Jose Mari Martin Retana, *La Gran Enciclopedia Vascaren* egilearengana jo zuen. *Gero* liburua eskuratzeko Arantzazuko bideta hartu zuen. Santutegian Joan Mari Torrealdairekin elkartu, eta *Jakin* aldizkariaren ale bat ekarri zuen Durangora.

1970. Azoka Andra Mariko elizpean.

1978. Azoka merkatu plazan.



1979. Andra Mariko elizpea.

1965. Udal-baimena lehen Azoka egiteko.

“Gizon horiek erakarri ondoren, Jesus Astigarra-garekin hitz egin nuen erakusmahaiak diseina zit-
tzan —azaldu digu Zugazak—. Horrelakoak ez dira
inoiz aitortzen. Diseinua Astigarragak egin zue-
la, metalezko perfilak *Ferretera Vizcaína* lantegiak
eman zituela, zura Arratiako arotz batek (izenik
ez dut gogoratzen) jarri zuela, pinturak Cefe Bur-
gadak eta Jose Luis Larrañagak eskaini zituztela.
Eta horietatik inork ez zuen sekula kobratu! *Txa-
kurtxiki* bat ere ez!”

Jose Luis Lizundiak ere estrategia egokiaren ga-
rrentzia azpimarratzen du: “Zuzenean ez zen joan
behar, zeharka, beti ezagunen baten bitartez joan
behar zenuen”. Hainbat laguntzaile aipatu dizki-
gu: Satrustegi, Urmeneta eta abar. “Errejimeneko
pertsona aprobetxagarrienak beti ere”. Gezia dia-
naren erdira hasieran jaurti beharrean, zeharka lan
egin behar omen zen, harremanak landuz, azpila-
na eginez eta ertz zorrotzak gozotuz. Jende asko-
renganako zorra aitortu digu: “Jesus Atxa, *Edili*
argitaletzeko arduraduna zen. Horrek asko lagundu
zigun. Gainera, bazkide egin zen”. Rikardo Arregi,
Juan San Martin eta beste hainbat lagun ere bazki-
de egin ziren. Ospe handiko izenak erakartzea ko-
meni zela esan digu Lizundiak, prestijioa lortzeko
eta batez ere harreman-sare interesgarria eratzeko.
“Arabán Olaizola zegoen. Horrek *Sancho el Sabio*
argitaletxea zeukan. Altube ere aipatu egin behar da.



Altubek liburuak egiten zituen Arabako basamotu kulturean. (...) Hasieratik eduki genuen Iñaki Beobideren laguntza. Oso figura inportantea izan zen. Eta Gereño anaiak. (...) Durangoko alkatearen (Balendin Egidazu) laguntza ere izan genuen, baina geroko agintariek ahaleginak egin zituzten Azoka bertan behera botatzeko”.

Balendin Lasuenek dioenez, Gobernadorea *kortesiagatik* gonbidatzen zuten. “Etortzen ez bada, hobe, baina guk behintzat gonbitea egin diogu”. Inaugurazio egunean zuzendaritzako bi edo hiru lagunek erakusten zioten azoka. “Batzuek gustura ikusiko zuten hori eta beste batzuek ez, baina guk liburu azoka egin nahi genuen zelan edo halan!”





Lehenengo Azoka

Lehenengo Azoka 1965eko urriaren 30ean hasi zen Durangoko Andra Mariko elizpean. Lekua ikusgarria zen, buruz behera jarritako itsasontzi baten antzekoa. Eta bere saihets sendoek ezjakintasunari eta erdararen enbatarri aurre egiteko bezain sendoak ziruditen.

Azaroaren 1era arte iraun zuen Azoka haren aurrekontua 46.587 pezetakoa izan zen. Guztira 25 editoreren lanak aurkeztu zituzten 18 standetan. Partehartzaileen artean, izen ezagunak: Auñamendi, Auspoa, Itxaropena, Sendo, Gomez, Espasa-Calpe eta abar.



“Lehenengo edizioko kartelaren barrenean —diosku Zugazak—, babesleen zigiluak ageri ziren, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako Diputazioenak alegia. Horixe nahi nuen nik”. Lau Diputazioek ez ezik, Euskaltzaindiak eta “Amigos del Pais” elkarteak ere bazeuzkaten standak.

Ekimen ausartak arrakasta lortu zuten ustekabeen. Jose Luis Lizundiak honela gogoratzen du: “Denok harritu ginen, bai editorialak bai geu, lehenengo Azokak izan zuen arrakasta ikusita”.

Zugaza ere antzera mintzo da: “Azokak arrakasta handia izan zuen. Eguraldia ere lagun izan genuen. Azokak iraun zuen denbora guztian ez nuen abarketarik kendu. Elizpea jendez bete zen. Ordukoa manifestazio itzela izan zen. Ezagun guztiek gauza berdina esaten zidaten: ‘Euskal gaien buruzko hainbeste liburu egongo zenik ez nuen sinistuko!’”

1965. Lehen Azokako zigilua.





1971. Andra Mariko elizpean.



1968. *La Gaceta del Norte* egunkaria.

Liburu-azoka ezohiko proposamena izan zen. Herriarrak bestelako kultur-ekitaldietara ohituta zeuden, tradizioetik eta folkloretik askoz hurbilago zeuden jaialdietara. Durangoko saio hura muinera zihoan, susturietara. *Anaitasuna*³ aldizkariak zioenez, “Jai hau ez da izan gure herrietan antolatutena direan beste Euskal Jaien antzekoa”. Folklore-ra mugatu beharrean (dantzak, bertsoak, kantuak eta abar), Azokak helburu sakonagoak zeuzkan: “Euskal kultura adierazo, indartu ta zabaldu gura izan dau”. Filosofia horren ondorioz, eta emaitza ikusirik, kultur mundua harriturik geratu omen zen. Jendeak kulturaren ikuspegi zabalagoa, osoagoa, izan zuen.

Azoka ez zen izan saltokia huts-hutsean, liburuak eta diskoak erakutsi eta saltzeko asmoaz gain, kultur ekitaldiz betetako programa ere antolatu zuten Gerediagako kideek. Ekitaldi haiek mesedegarriak ziren jendearen interesa pizteko eta euskalzaleak erakartzeko, baina, Lizundiak dioskun bezala, alde kaltegarria ere bazuten: “Azoka jantzi egin behar zen. Adibidez, dantzariak, txistulariak eta abar ekarrita. (...) Leopoldoren hitza da, eta nik onartzen dut zeharo, liburuak zela “erreege”. Nik uste dut hori inportantea dela. Adibidez: bertsolari-txapelketa bat egin zen Andra Mariko elizpean. Leopoldo haserretu egin zen, arrazoiaz. Jendeak ez zuen libururik ikusten, ezta libururik erosten. Elizpea bete-bete zegoen. Gero bigarren saioa Astarloa zineman izan zen, bestela Azoka jan egiten zuen. (...) Gauzak egin behar ziren, baina ez liburuak jateko”.

Lehenengo edizio haren berotasunean, *Zeruko argia* aldizkariako kazetariak⁴ zorionak eman eta hausnarketa egin zuen Azokaren etorkizunaz: “Zorion betea opa diogu. (...) Noraño zabalduko ote da emen asitako etxea? (...) Ez gaitetzen erria jakintza etxera etorri zain egon. Jakintza da erriari bidera irten behar zaiona. Bijoa, ba, agirira, plazara, kalera, nun-naira. Ta erakus beza bere jakinbide zabalara”. Mezu baikorra eta beroa, ezpairik gabe, “Euskara jalgi hadi plazara” lelo zahar eta ezagunaren oihartzun itzela nabari zaiona.

3 *Anaitasuna*. 1965, azaroa.

4 Aranburu. *Zeruko Argia*. 1965, azaroak 7.



70eko hamarkada. Andra Mariko elizpean (argazki biak).



Basarri bertsolariak *La Voz de España* egunkarian⁵ egindako kronikan ere argi eta garbi antzematen da baikortasuna: “Durangoko Merindadeko Adiskideen Gerediaga Elkarrekin ez du bertan behera utziko kulturaren eremuan egiten ari den lana. Lehenengo Liburu Azokak ustegabeko maila lortu du. (...) Herriaren erantzuna laudagarria izan da”.

Ikusi duzueenez, jendeak oso iritzi positiboak eman zituen Azokari buruz, baina Torrealdai⁶ adierazpen ezkorragoak egin zituen urte hartan: “Euskal liburuaren azoka bat ikustean, batzuk adurretan geratzen dira: ‘Len ezin eitekean olakorik egin!’ Ta pozik. Niri, oster, aldrebes pasetan jat. Anketara etorri jat arima azoka batzutan. (...) Liburu orreetatik 300-era ez dira ailegetan euskarazkoak”.


Iritziak iritzi, jendeak liburu asko erosten zituen, militantziak bultzaturik. Dena dela, zuzeneko salmentaz gain, harpide berriak egiteak ere bazuen garrantzia, *Jakin* eta *Anaitasuna* bezalako aldizkari kasuan esaterako.


Lehenengo edizioaren kronika amaitu baino lehen gertaera berezi baten berri eman nahi nuke. Orduko gizartearen adar ustel bat erakutsiko ez balu, xelebrekeria hutsa baino ez litzateke izango. Kontua da Azokaren bezperan, antolatzaileek dena prest utzi zutela, standak eta gainerako gauza guztiak; baina biharamunean, elizpera iritsi eta arkupe osoa Espainiako banderaz beteta aurkitu zuten. Banderak galantak omen ziren gainera. Arrate Ulaziak, Nerea Mujikaren (gaur egungo zuzendariaren) amak, honako hau esan zion Pedro Aboitiz parrokoari elizpean: “Don Pedro, euskara ateraino heldu zaizu. Edozein egunetan barrura ere sartuko zaizu”. Eta Parroko jaunak handiagoa bota zion: “Bai, amaraunak kentzen ditudan egunean!”⁷ Parrokoa banderei buruz ari zen ironiaz.

5 Basarri. *La Voz de España*. 1965, abenduak 3.

6 *Anaitasuna*. 1966.

7 Leopoldo Zugazak esandakoa. 2015.





Hasierako urteak

Balendin Lasuen, presidente.

Conchita Astola urte eta erdi inguru lehendakari izan ondoren, kargua alde batera utzi zuen eta Balendin Lasuen jarri zuten arduradun.

Zugazaren esanetan, “hurrengo urteak lasaiagoak izan ziren. Ni bisitan joaten nintzen. Kontua ez zen liburugileak eskutitz batez gonbidatu eta kitto, hurbiltasuna lortu nahi nuen”. Eta gero eta arduradun eta liburugile gehiago erakartzea lortu zuen.

Azoka bolumenean ere handituz zihoan. Hori diosku Lasuenek: “Lehenengo Azoka egin genuenean itzelezko arrakasta lortu genuen. Hurrengoan 3 edo 4 stand gehiago, eta horrela”.



“Leopoldo Zugazari *gure motorra* esaten nion —aitortu digu Lasuenek—. Hasierako ekitaldietarako ideak bereak ziren, eta gu laster kutsatu ginen”.

Inoiz edo behin ibili zen Leopoldorekin hara eta hona, jendea azokara erakartzeko. “Zarautzeko *Itxaropena* inprentara, Donostiara ere joanda nago, eta liburudenda garrantzitsuetan ere elkarrekin egonda gaude. ‘Amigos del País’ekoengana ere behin edo birritan joanda nago”.

Bera presidente zela tirabirak gertatu ziren elkarrearen barruan. Lasuenek dioenez, zuzendaritzak ez omen zuen martxarik galdu. Tirabiren arrazoiez galdetuta, berak ez ei daki gauza argirik eta kome-niko litzateke argitzea Lasuenean ustez. “Gurutze Arregiri galdetu nion noizbait zer gertatzen zitzairen, gauza arraroren bat sumatzen nuelako”. Harrigarria bada ere, ez du gogoratzen Gurutze eta beste bi kide elkartetik bota zituztenik.

70eko hamarkada merkatu plazan. Eskumaldean, Balendin Lasuen.



2005. Bittor Kapanaga eta Balendin Lasuen Azokan.

70eko hamarkada. Merkatu plazan.

Gerediagako kide batzuek Zugaza kokatzen dute liskarren epizentroan. Hala ere, Zugaza ez zuten kaleratu, berak dimitutu zuen. "Gerediaga alde batera utzi nuen Kurutziaga Ikastola sortzeko. Gerediaga erakunde garbia zen, onartutakoa. Ez zegoen arazorik. Ikastolei, ordea, jendeak asmo politikoak ikusten zizkion. Ni Ikastola sustatzen hasiz, ez nion kalterik eragin nahi Gerediagari. Horregatik dimititu eta alde egin nuen".

Kaleratutako kideez galdetuta eta liskarrari buruz berak duen bertsioa eskatuta, haxe erantzun zion: "Nik ez daukat bertsiorik. Bene-benetan diotsut irainak ahazteko gaitasun handia daukadala. (...) Gauzak ikusteko molde desberdinak hasieratik zeuden. Batzuek marxismo-leninismoan sinisten zuten eta beste batzuen ustez demokrazia nahikoa zen. Pentsamolde desberdinak zeuden, jakina! (...) Gerediagak antolatu zuen lehenengo ekitaldietako bat mando baten eta moto baten arteko lasterketa izan zen. Ni oraindik lotsatuta nago harekin. (...) Ez dut uste gure lana zenik halakoak antolatzea. Nire iritziz, helburu jasoagoak behar genituen. Kontuan hartu batzuen prestakuntza nahiz zaletasunak, eta besteak oso desberdinak zirela. (...) Frikzioak ez, ikuspuntu desberdinak bai, eta bakoitzak berea eskaintzea komenigarria da gainera. Beraz, desadostasunak? Jakina. Kontrako irizpideak? Jakina. Baina benetan diotsut; nik balio anekdotikoa baino ez nioke emango".



Tirabira haiek argitzeko, irudi batez baliatzen da Zugaza: "Jende asko mahaira agertzen da janariak prest daudenean, serbiletan ipini besterik egin behar ez denean, eta esaldi hau esaten dute: 'Hau honela egin behar da'. Eta aurkakoa esaten badiezu, haserretu egiten dira. Ba sentitzen dut! Meritua, lana egin dutenena da. Helburu batzuei jarraituz kudeatu denaren erantzukizuna sortzaileena izaten da batez ere, kanpoko jendeara baino gehiago".



Lizundiak ere bere ikuspegia azaldu du auziaren inguruan, errealitate poliedrikoari beste aurpegi bat gehituz. “Gerediaga elkarte federal bat izan da. III. edo IV. Azokan Leopoldo haserretu egin zitzaizgun. Ideia berea izan zen eta hori aitortu egin behar zaio, eta goraiatu. Balentin Lasuen presidente zela, Leopoldok feriatik alde egin zuen. Orduan Balentin Lasuen, estututa, nigana etorri zen, ‘orain zer egingo dugu?’ galdetzera. Hemen inor ez da ezinbestekoa. Feria ez da pertsona batena, ez gurea, ez berea, ekipo batena da, eta berak ekipoa abandonatu egin du. Baina gero zenbait ekintza ordezkartzek egiten zituzten. Durangoko ordezkartzaren



70eko hamarkada. Probintziako agintariak Azoka ikusten. Ezkerraldean, Balentin Lasuen.

70eko hamarkada. Merkatu plazan.



lagunen gehiengoa zeukan Leopoldok, eta Durangoko ordezkartzita hasi zen antolatzen feria, eskusiban. (...) Orduan sortu ziren tirabirak eta abar. (...) Ez zen sigla kontua. Ezin liteke mugatu dimentsio politiko partidario batera. Gehiago zen Durangoko talde baten kontua”.

Jon Irazabalek (25 urte inguru azoka-zuzendari izandako historialariak) dio Gerediagaren barruko polemika, urteetan luzatu ondoren, era traumatikoan amaitu zela. “Tirabiraren oinarrian kontrolatzeko nahia dago. Durangoko Liburu eta Disko Azokak garrantzia eta ospe handia hartu du Euskal Herri osoan. Elkartearen barruan sentsibilitate desberdineko jendea dago. Sektore bat kultura herrikoia aldea da; beste batek, ordea, diseinu akademizistagoak eta konbentzionalagoak defendatzen ditu. (...) Bozketa sekretua eginez, Gurutze Arregi, Basilio Arana eta Jon Berganza Gerediaga Elkartetik kanporatzea erabaki zuten”.





Alberdi eta Goikolea presidenteen garaia

Lasuenen garaiaren eta hurrengo garai sendoaren artean, bada tarte berezi bat: Jose Ignazio Alberdik eta Sabin Goikoleak gidatu zutena, lehenak 1972tik 1978ra, eta bigarrenak 1978tik 1980ra.

1975ean *Zeruko Argi*ko kazetari batek⁸ Durangoko Azokaren oinarrizko deskripzioa egin zuen: "Azoka honetan ez da abererik, tresnarik eta barazkirik salduko. Liburuak eta diskoak dira salgai". Badi-rudi garai hartan horrelako argibideak behar zirela oraindik... Aldizkari berean, "Euskal herrietatik" sailean Durangoko erretratu zaharkitua egin zuen berriemaileak⁹, zabortegeari buruzko albistea idazterakoan: "Zaramategiko keak kaleraino iristen dira. London ttipi bat eginaz gure herria". Beste garai bat deskribatzen du. Desegin zen Londoneko ke-lainotza eta desagertu da Durangokoa ere.

⁸ *Zeruko Argia*. 1975, azaroak 1. Artikulua ez dago sinatuta.

⁹ *Zeruko Argia*. 1975, azaroak 1. Kataturik sinatuta.

70eko hamarkada. Jose Antonio Azkorbebeitia Alfabetatze saria jasotzen. Eskumaldean, Jose Ignacio Alberdi.

1980. Azokaren inaugurazioa. Jose Luis Lizundia, Antonio Tovar, Patxi Zurikarai eta Sabin Goikolea.



Gaur egun Landakoko tximinia orduko kutsaduraren eta bizimodu industrialaren lekuko isila dugu. Ikur bilakatu den tximinia handi horrek erakartzen ditu gaur egun kultur munduko tximista guztiak, Euskal Herriko hitz eta doinu berri guztiak. Baina jarrai dezagun aspaldiko giro kutsatu hartan, lausotik gardentasunerako bidean aurrera eginez.





1978. Azokaren inaugurazioa. Juan San Martín, Balentin Lasuen, Francisco Amorrortu eta Sabin Goikolea.

1978. Garaia aldzikaria.

Jose Ignazio Alberdiren iritziz, “Gerediaga Elkartearen sortzaileak bisionarioak izan ziren. Fraga Iribarnekin egin zuen lege bat baliatuta, eskubide pila bat zeukan erakunde bat egin zuten. Kultura aldetik, eta beste alde askotatik ere, hainbat arlo jorra zitzakeen erakunde sortu berriak. Orduan gabezia handiak zeuden”.

Zuzendari izan zen garaian “editorial gutxi zegoen —diosku Alberdik—, eta erakundeekiko harremana ere asko landu behar zen, Azoka itxurosoa egiteko”.

1975ean, konturaturik ordurako Azoka indarra hartzen hasita zegoela, “Bizkaiko Gobernadoreak, Fulgencio Coll San Simon jaunak, Azoka galazotzeko ahalegina egin zuen. Azkenean kristoren mesedea egin zion Azokari. Guk alternatiba prest geneukan merkatu-plazan. Argitaletxeek eta asko eskertu zuten. Elizpea dotorea zen, baina txikia. (...) Gobernadore aho bete hortz geratu omen zen”.

Garai gogorraren ispilu, Alberdik beste arazo bat ere izan zuen agintariekin, legez kanpoko batzar bat egiteagatik. Hirigintzarekin zerikusia zuen batzar hura zela-eta salatu egin zuten eta Tribunal de Orden Público zeritzonak epaitu egin zuen.



Franco hil ondoren egoera erabat aldatu zela diosku Alberdik. “Orduan jendea guregana etortzen hasi zen. ‘Laguntzarik behar baduzue...’ Denak lagunak. Denbora gutxian lagun pila bat egin genuen. Baderpadako lagunak”.

Bere garaian talde lana oso garrantzitsua zela azpimarratu digu, eta norbaiten lana bereziki gorai-patu beharko balu, Bittor Kapanagaren ekarpena laudatuko luke. “Azpijana egiten zuen, tiki-tiki-tiki. Azokako atea zabaltzen zirenetik ixten ziren arte, batarekin egon, bestearekin... Hura aparta zen. Norbait goi mailan ipintzekotan, bera”.

Alberdiren ondoren Goikolea etorri zen.



1979. Azokaren zenbait ikuspegi merkatu plazan.



1978an *Deia* egunkariak Gerediaga Elkartearen diagnosia zuzen eta labur bat azaldu zuen, Sabin Goikoleari (zuzendari berriari) eginiko elkarrizketaren bidez¹⁰: “Aurtengo hau, zuzendaritza osoa berri-berria den une batean gertatzen da, eta Gerediaga barruan nortasun-krisi bat inoiz baino nabarmenagoa denean”. Goikoleak adierazpen garbiak egin zituen arlo askotan. Hara adibide bat: “Nortasun-krisi batean dago Gerediaga. Diktadura denboran talde-ekintza asko babesten zen bere ardurapean eta halako indar eta bizitasun bat lortu zuen. Baina, egoera politikoa aldatu den neurrian, lege aldetik elkarte berriak sortzeko eta egituratzeko eragozpenak kendu dira, jendea han-hemenka sakabanatu egin da, arrazoi batez edo beste batez alde egin du, eta Gerediaga, kokilduta bezala, noraezean geratu da”.

¹⁰ *Deia*. 1978, urriak 19.



Azoka “birpentsatzeko” premia askotan planteatu eta burutu du Gerediagak. Sabin Goikoleak, esaterako, 1978an adierazi zion *Deiako* kazetariari garai berrietara egokitzeko beharra. Hausnarketa horren ondorioz, hainbat aldaketa burutzeko gogoera erakutsi zuen lehendakariak. Hona hemen Goikolearen hitzak: “Ahaleginak egin behar ditugu [Azoka] goimaila batean mantentzeko, eta beste azoka bat gehiago bihurtu ez dadin”.



1979. Azoka merkatu plazan (argazki biak).



XIV. edizioa amaitzeaz bat, Gerediakak “inkesta bat egin zuen stanetan, saltzaileen iradokizunak jasotzeko”¹¹. Inkestaren emaitzak azterturik eta aurreko urteetako eskarmentua kontuan harturik, erabaki bat hartu zuten: “Argialetxeen stanetan agertuko diren liburuak argitaratzaile horienak izatea”. Eta honako ideia hauek plazaratu zituen jarraian: “Euskal Herrian argitaratzen denaren erakusleio bihurtu nahi dugu Azoka, saltoki hutsa izaterik ez dugu nahi. (...) Azoka argialetxeei eskaini nahi diegu, ez liburu-saltzaileei”.

Standak nahiko zaharrak zirenez eta nahikoa hondatuta zeudenez, berriak jartzekotan egon ziren, baina berriak garestiak iruditu zitzaizkienez, asmoa ez zuten gauzatu.

Adituen diagnosiaren arabera, urte haietan euskara eta euskal liburugintza suspertzen hasi ziren. Eskoletarako eta ikastoletarako materiala gero eta ugariagoa zen. Bestalde, Azoka egunetan Durangon jendetza ikaragarria biltzen zenez, bisitariak zailtasunak izaten zituzten liburuak ikusteko.

Azokaren inguruan, edota Azoka aitzakiatzat hartuta, programazio zabala antolatzen zuten: kantaldiak, bertsolari-txapelketak, folklorea eta abar.

¹¹ Goikolea. *Hoja del Lunes* egunkaria. 1980.

